

FITXA: 206 – GIPUZKOA - Gipuzkoako toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek antolatutako ikuskizun eszenikoak eta musikalak aire zabaleko espazio publikoetan gauzatzeko dirulaguntzak (Kale Kultura).

Nori zuzendua: Gipuzkoako toki entitateak eta haien menpeko entitateak	
Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala	Deialdiaren data: 2026/03/05
Sarbide-esteka: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera	
Erreferentziarako araudia: FA-KG-2026-0094	Foru Agindua - https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/05/c2601056.pdf
Eragin eremuak: Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirolak	
Zenbatekoa: 150.000,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/05/04	Aurkezteko azken eguna: 2026/05/29
Aurrerakina: Ez da zehaztu	Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.	Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Laburpena

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei diru-laguntzak ematea Garapen Iraunkorreko Helburuen (aurrerantzean, GJH) ingurumen-helburuak lortzen lagunduko duten azterketak, planak eta proiektuak egiteko (Kale Kultura).

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak antolatzen dituzten toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Emanaldiak eskainiko diren lekuak egokiak izatea, seinaleztatuak eta mugatuak, indarreko legediak eskatzen dituen segurtasun neurri guztiak beteko dituztenak, bai eta programatzen diren ikuskizunetarako erantzukizun zibileko aseguruak.

- b) Behar izanez gero, artistei aldagela moduan erabiltzeko lokalak eskura jartzea.
 - c) Emanaldien alderdi teknikoak koordinatuko dituen pertsona arduradun bat izatea.
 - d) Nahi adina emanaldi aurkeztu ahal izango dira, baina bat baino gehiago antolatuz gero, %50 gutxienez euskaraz izango dira.
 - e) Emanaldiak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barruan, hau da, urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, gauzatu behar dira.
- Laguntza hauetatik kanpo gelditzen dira, espresuki, programa edo jarduera hauek:
- a) Festetako egitasmoetan sartutako musika emanaldiak.
 - b) Erritu izaerako edo ohiko jaietara lotutako ekitaldiak.
 - c) Udalerri mailako jarduerak, beste herri batzuetan antzeztuak izateko diseinatuta ez daudenak.
 - d) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiko beste laguntza bat jasotzen duten jaialdien barnean antolatzen diren emanaldiak.
 - e) Dirulaguntza izenduna dutenak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Emanaldiak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barruan, hau da, urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, gauzatu behar dira.